



Esp.kodea: 2021JDIR0008

Gaia: PERLATA: DIRULAGUNTZA
ESKATZEA MUSIKA GRABAKETARAKO
Hasiera eguna: 2021/11/09

JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko abenduaren 2an egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

“Perlata musika taldea: dirulaguntza eskatzea disko bat grabatzeko (2021JDIR0008)

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Garapen Komunitarioaren Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“PERLATA musika taldeak dirulaguntza eskatu dio Udalari disko bat grabatzeko. Taldeak betetzen ditu 2021ko dirulaguntza deialdiaren baldintzak eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu du, tartean diskoaren grabaketari dagokion faktura 1.391,50 € (BEZ barne).

Hori dela eta, hauxe proposatzen dio Garapen Komunitarioaren Batzorde honek Tokiko Gobernu Batzarrari:

- **LEHENENGO.** 2021ko dirulaguntza deialdiak finkatzen duenari jarraiki, PERLATA musika taldeari 695,75 €ko laguntza onartzea, 1-0410-480-337-20-01 maketak grabatzeko diru laguntzen partidaren kontura (gazteriako ekintzen partidari lotuta).
- **BIGARREN.** Dirulaguntza onartzean, PERLATA musika taldeak konpromisoa hartzen du gazte txokoetako baten kontzertu bat doan eskaintzeko.
- **HIRUGARREN.** Gogoraraztea PERLATA musika taldeari onartutako laguntza jasotzeko udalari diskoaren zazpi kopia entregatu behar dizkiola.
- **LAUGARREN.** Gogoraraztea musika taldeari grabatutako diskoaren karatula editatuz gero, testua euskaraz azaldu beharko dela, bakarrik edo beste hizkuntza batzuekin batera.”

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Edozelan ere, nahi izanez gero, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu aurretik, BERRAZTERTZE ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu; horretarako, HILABETEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, haren aurka, zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu

Kodea	BB21/01230	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/abe./13	CUDO	000.0055.AAAAMY39.N.R7WD
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAMY39N.R7WD		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2021JDIR0008

Gaia: PERLATA: DIRULAGUNTZA
ESKATZEA MUSIKA GRABAKETARAKO
Hasiera eguna: 2021/11/09

Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, Donostian; horretarako, BI HILEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia egin dezakezu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114 c), 123 eta 124 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera, eta uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.

Eta horretaz gainera, bidezkoztat jotzen baduzu, beste edozein egintza edo errekurso aurkeztu dezakezu.

Idazkaria

ANE GARAI ARRIETA
ERGUIN KALEA, 2 - 3. A
20500 ARRASATE/MONDRAGON

Kodea	BB21/01230	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/abe./13	CUDO	000.0055.AAAAMY39.N.R7WD
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAMY39N.R7WD		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

